

## Jaiak eta aldarrikapenak bat egin dute ESAIT Egunean

**LEITZA** ▶ Herenegun eginiko IX. Euskal Selektzioaren Egunean askotariko ekitaldiak izan ziren

**HELBURUA** ▶ «Ofizialtasuna lortzean ESAIT desagertuko da», azaldu du Martxel Toledok ▶ 4-5

**TOLOSALDEA** ▶

**EAErenak**  
liratekeen  
karguak ez  
ditu hartuko  
Aralarrek

Gure eskualdean,  
Tolosan, Zizurkilen  
eta Ibarren izango  
luke eragina ▶ 3

**ALEGIA** ▶

**Bertso**  
eskolaren  
lehen  
urratsak


Gaztetxoekin ari  
dira aurten ▶ 7

**IBARRA** ▶

**EAEk «710**  
herritarrei  
muzin  
egitea» ez du  
onartuko ▶ 6

**ANOETA** ▶

**Festa giroa**  
izan da  
nagusi  
asteburuan ▶ 2



Askotariko ekitaldiak egin zituzten egun osoan zehar: harrera, zanpantzarrak, zakur erakusketa,... ESAIT / I. AZPLIKUETA

**TOLOSALDEA** ▶

**HITZA** Pilota  
Txapelketa  
azken  
txanpan

Gaur, kadeteen  
finalerdiak ▶ 7

**TOLOSA** ▶

**Ismael Fakhri 'Isma'-rentzat lau**  
urteko espetxe zigorra «atentatua  
eta desordena publikoagatik»

2006an epaitu zuten Hodei Galarraga ETAko militanteari  
Zaldibian egindako omenaldian parte hartu zuelako ▶ 3

ZIZURKIL ▶ SEGA

# Garin izan da garaile nesken Gipuzkoako txapelketan

Mutiletan gazteluarrak izan ziren nagusi, irabazlea Gabirondo izan zen, eta bigarren Goikoetxea; sailkapen nagusian ordea, Gabirondo eta 'Urki'

ESTI EZEIZA

Herenegun Zizurkilen jokatu-tako Gipuzkoako Segga Txapelketan, nesketan, Arrate Garin izan zen irabazle. Honen atzetik, 18 segundoko aldearekin, Maria Luisa Gabirondo gazteluarrak geratu zen bigarren. 35 metro karratuko bi bela sail moztu behar izan zituzten segalariek. Proba honetan abiadura eta txukuntasuna hartzen zuten aintzat. Haatik, ez du azkar mozteak bakarrik balio, txukun eta ebaki beharra daukate parte-hartzaileek, bestela zigorrak izaten dituzte.

Mutiletan berriz Gipuzkoako Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zen toki berean. Hemen eskualdeko bost segalari lehiatu ziren, eta gaztelua-



Emakumezkoen sari banaketako unea. HITZA

rrak izan ziren nagusi. Joxe Gabirondok zazpi minutu behar izan zituen 100 metro karratuko bi sailak ebakitzeko, honen bestez, berak irabazi zuen kanporaketa. Bigarren, beste gazteluar bat izan zen, Andoni Goikoetxea. Honek, aurrekoak baino 43 segundo gehiago behar izan zituen. Eta hirugarren, hamairu segundoko aldearekin, Jesus Mari Ormaetxea Urki geratu zen. Laugarren Mikel Alkorta sailkatu zen, eta azkenik, Arkaitz Arteaga.

Zizurkilgoarekin, bi kanporaketa jokatu dituzte mutilek, eta bakarra geratzen zaie lehen fasea amaitzeko. Bi jardunaldi hauetako emaitzak kontuan hartuta, Gabirondo eta Urki doaz lehen postuan 13na punturekin. Atzetik, Goikoe-

txea eta Alkorta daude, 8na punturekin, eta azkenik, Arteaga, 3rekin. Lehendabiziko saioa betiko erara jokatu zen, bigarrena, nazioarteko erara, eta azkena, berritua, betiko moduan izango da. Hurrengo saioaren ondoren, bost segalarietatik lau sailkatuko dira finalerako.

## Euskal Herriko Txapelketa

Gipuzkoako Txapelketako bigarren kanporaketen bezperan, hau da larunbatean, Euskal Herriko Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu zuten Lantzen (Nafarroa), eta hemen, Lapazaran eta Urki sailkatu ziren finalerdietarako. 30 minutu zituzten segalariek ahalik eta kilo gehien mozteko. Hala, Ormaetxeak lortu zuen belar gehien ebakitzea, ondoren Lapazaran bizkaitarra sailkatu zen, eta hirugarren, Mariñelarena. Jokatu-tako bi kanporaketen ostean, Ormaetxea eta Lapazaranekin batera, Goikoetxea eta Arteaga sailkatuta daude finalerdietarako. Bestalde, Gabirondo, Alkorta eta Goioaga igande honetan lehiatuko dira Gasteizen, lehen faseko azken kanporaketa.

ANOETA ▶ JAIK

## Ekitaldiz beteriko asteburua

E. Ezeiza. ▶ Asteburu luzea eta ekitaldiz betetakoa izan da honako hau anoetarrentzat. Herriko txistularien kalejirarekin hasi zuten eguna herenegun eta Kupela erromeria taldearen emanaldiarekin amaitu, goizaldean. Tarteetan, herri kirol saio berezia ikusi ahal izan zuten herritarrek, Anoetako «zaharrak», «gazteen» aurka lehiatu baitziren. Herriko artistetan lanekin osatutako erakusketa ere ikusgai izan zen udaletxean. I.A..



Irribarra ahoan  
dizdira begietan  
oroimen hau gordetako dugu  
belirako bihotzean.

Aitor TXIKI

Oiartzungo zure lagunak

HILBERRIK  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAn jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSA ▶ POLITIKA

# Lau urteko kartzela zigorra ezarri diote Ismael Fakhri 'Isma'-ri

Hodei Galarraga ETako militanteari Zaldibian egindako omenaldian parte hartzeagatik epaitu zuten 2006an



Ismael Fakhri. HITZA

TOLOSALDEA ▶

## EAErenak liratekeenak ez ditu hartuko Aralarrek

Tolosan, Zizurkilen eta Ibarren izango luke eragina gure eskualdean

ERREDAKZIOA

Aralar alderdiak jakitera eman duenez, EAE-ANVren zerrenda ez-legezkoenak liratekeen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udal eta batzar nagusietako karguak ez hartzea erabaki du. Gure eskualdean, EAE balioagabetu duten 3 herritan lotu du ordezkaritza EB-Aralar koalizioak, Tolosan, Ibarren eta Zizurkilen, hain zuzen ere.

Atzo goizean Ion Abril Aralarreko koordinatzaileak eta Idoia Ibero EAE-ANVren Gipuzkoako Batzar Nagusietako hautagaia bilera egin zuten Orion, eta ondoren jakinarazi zuten hartutako erabakia. Balioagabetze kontrako bidean «aurrerapauso» dela uste dute. EAE-ANVkoek kargu horiek hartzeko zer bide erabiliko litzaketen ez dute esan.

ERREDAKZIOA

Ismael Fakhri *Isma* tolosar gaztea Martuteneko espetxean sartu zen herenegun ezarritako zigorra betetzera. Hain zuzen ere, Hodei Galarraga, ETako militanteari Zaldibian egindako omenaldian parte hartzeagatik epaitu zuten 2006ko apirilaren 4an, beste hiru gazterekin batera, eta ezarritako epaiaren arabera, atentatua eta desordena publikoa egozten diote, urte eta 10 hilabeteko kartzela zigorrera kondenatu lehene delituagatik eta urte eta bi hilabete bigarrenarengatik. Denera, lau urterako espetxe zigorra bete beharko du, aurretik ere bete gabe baitzuen urtebeteko zigorra.

Segik adierazi duenez, «gazterien aurkako eraso berri hau Espainiako estatuko eta haren jokoa den Euskal Auto-



Atxiloketa salatzeako konzentrazioa eta manifestazioa burutu zuten. A.I.

nomia Erkidegoko Gobernuak Euskal Herriko gazte sektore kontzientziatu eta borrokariaren barnean kokatzen dugu. Bestalde, kontuan izan behar dugu Ismael gaztea sueten iraunkorra mantentzen zen garaian izan zela epaitua eta zigortua, beste behin argi utziz, zein den Zapateroren be-

netako talantea eta Espainiako Gobernuaren benetako negoziazio borondatea».

Halaber, nazkatuta daudela Euskal Herriak bizi duen gatazka honetaz esan du Segik; «nazkatutik gaude, gure kideak, lagunak, familiarren ezagunak, orohar, herri honek bizi duen eskubide urraketa amai-

tzeko borrokatzen duten euskaldunak espetxeratuak nola diren ikusteaz; baina, hala ere, ez gaude prest etxitzeko, ez gaude prest arbasoek hasitako askapen borroka hau ade batera uzteko».

Bestalde, euskal herritarren esku dagoela egungo egoera ez errepikatzea dio Segik; «*Isma* gure aldamenetik eramanez dute, lau urterako. Ez da lehena eta zorritzarez ez da azken izango, baina, gure esku dago une honetan bizi dugun egoera lazgarria ez errepikatzea eta Euskal Herriak urratuak dituen eskubideak lortzea, horregatik jarraitu behar dugu antolatzen eta borrokan, posible delako.

Hala, Segik deituta, tolosar gaztearen atxiloketa salatzeo helburuz, konzentrazioa burutu zuten atzo gauean Triangulo plazan.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Uniformerik gabeko harrokeria

Ostiral gaua. 11:30ak. Tren geltokitik lanetik bueltan. Berazubin Paper eskolaren hertzean, iluntasunean, Ertzaintzaren furgoneta bat ikusi nuen geldituta eta kanpoan bi ertzain, Afrikar bat eta beste bi gizon. Kalean beste inor ere ez. Hasieran agian elkarrekin zeudela, edo bestela, istripu bat izan zela pentsatu nuen. Agian, bigarrena. Atzerrian 12 urte pasa ondoren badakit zein gaizki pasatzen den etorkin bat zarenean, hizkuntza menperatzen ez duzunean eta autoritatearen aurrean zaudenean eta gainera zerbaite leporatu dituztenean. Horri guztiari azal kolorea gehituta. Han eta Bilbon Afrikar lagun asko izan ditut eta denok dakigu kolorearengatik oso erraza dela kriminalizatzea, hauek gelditzea eta pentsatzea paperik ez dutela izango, baimenik ez, eta abar. Pasa-

zteen begiratzen gelditu nintzen, 20 bat metroko distantzian. Bitartean paperak eta maleteroa erakutsi arazi zioten.

Laster jakin nuen beste bi gizonak zer ziren. Bata nigana azkar etorri zen: «Muevase, circule...». Argi zegoen: beste ertzain bat zen.

Badakit horrelako jarreraren aurrean erantzuteak gauzak oker ditzakeela, baina hori onartezina zen. Bide publiko batean nengoela esan nion eta han egotea nire eskubidea zela eta galdetu nion bera zein zen niri hori esateko (aginduarengatik eta jarreragatik argi zegoen. Ordura arte edonortentzat beste gizon arrunt bat bezalaterik ez zen. Hori esan eta dagoeneko bere eskuan zeukan kartera ireki egin zuten bere ertzaintza txartela erakusteko (edo edozein gauza, ikusteko denborik ez bainuen izan). Ibiltzen jarraitzeko agindu zidan berriro, nortasun agiria erakusteko eskatuko zidala mehatxatzen. Erantzun nion hori egin zezala, inongo arazo-

rik ez nuelako. Operazio batean zeudela esan zidan eta mugitu behar nuela. Bestea, 2 metroko morroia, mugikorretik hitz egitez bukatu eta nigana etorri zen mugitzeko agintzera. «Euskeraz! Ezin duzue euskaraz egin, ala? Hau da nire etxerako bidea eta gelditzen nahi ba dut gelditzen naiz!» esan nien. Biek begiratu ninduten eta «siga» oihukatuz zidaten berriro. Ez zuten tutik ere ulertu!

Pixka bat aurrerago joan eta begiratzen jarraitu nuen. Argi zegoen lau polizia gelditutako afrikar batentzako egoera ez zela oso eroso izango. Ezer ezkutatu behar ez duenari bost axola zaijo beste batek begiratzen duen ala ez. Eta horrelako jarrera bazegoen agian zerbaite serioa zegoelako zen.

Orduantxe bukatu zuten operazioa. Bakoiatza bere kotxera. Nik nire boltsekin aldapa gora jarraitu nuen. Kaleko jantzitako ertzainaren autoak pasa ninduen. Ertzaintzaren furgoneta, eta gero afrikarrak.

Niretzat haien jarrera adierazgarria izan zen: harrokeria,

hiritarren kontrakoa... Nik ez nuen haien operazioa oztopatu. Polizia indarkeria dagoela ez da iritzi bat bakarrik baizik eta errealitate bat. Eta horrelako jarrerak poliziak indarkeriz aritzeko frogatzen dute. Nik nire hiritar ardura praktikan jarri nuen, egoera bat ulertzeko prest egonez. Indarkeriak hiritarren pasibitateak babes-tuta gertatzen dira. Baina haien jarrera, nire eskubideak onartu gabe, aldi berean defentsa-ileak eta erasotzaileak izan zen.

Ederra irudituko zaie haien polizia karnetaz baliatuta nobaiti alde egiteko agin dezaketela uste badute, indarrak gabe, edo pistola erakutsi gabe edo legerik gabe. Aldapa gora nijoanean pentsatzen nuen: «zein ondo, gure zergekin jende hau kotxe batean hor zehar gidatzeko ordaintzea, afrikar bat gelditzeko eta guri pikutara arrokeriaz bidaltzeko». Askotan hitz egin dugu poliziez eta botereaz, eta azken finean egia da berdin duela hemengo edo beste nonbaiteko izatea, beti indarra inposatzen dute.

Estatu polizial batean bizi gara, eta hauek ez gaituzte gehienetan babesten; alderantziz, oso gaizki tratatzen gaituzte. Hau gatazka politikoa dela diote eta erabateko kasu politikoaz mintzatzen dira. Aldapa gora Guardia Zibilaren koartela, azken boladan (su-etenak iraun zuten bitartean) haien hiritarrekiko boterea islatzen sahiatu dira, edonon kontrolak jarritz eta beste hainbat bideren bitartez. Asteburuan, esaterako, Mungian beste indarkeria kasu bat gertatu zen.

Nire nortasun informazioa benetan nahi bazenuten hemen daukazu: izena eta abizena. Esan nuen bezala, arazorik ez daukat, legeare kontrarik ez bainuen egin. Beldurraren gizarte batean bizi gara. Askotan beste batzuk sortzen dutela diote eta onartzen dut beste biolentziak badaudela (noski), baina argi dago poliziak (kolore desberdinekoak) gizartea sumisoa eta isila nahi duela eta ezin dugu hori onartu, honek indarkeria erraztuko duelako.

MARTIN MANTXO ▶ TOLOSA

LEITZA IX. EUSKAL SELEKZIOAREN EGUNA

# Jaia eta aldarrikapena uztartuz

## IX. Euskal Selektzioaren Eguna ospatu zuten herenegun Leitzan eta tarteka euri ja eserrak egin zituen arren, puzgarriak eta arratsaldeko pilota partida besterik ez ziren bertan behera gelditu

NAIARA GARCIA

Ekain eta ekain, elkarrekin aurrera egin lempaen igaro zen herenegun Leitzan ospatutako IX. Euskal Selektzioaren Eguna. Euria tarteka puzoz egin zuen arren, antolatutako ekitaldiak orokorrean bere horretan igaro ziren. Arratsaldeko eskuzko pilota partidak bertan behera utzi zituzten eta goizez haurrentzako puzgarriak ere ez jarztea erabaki zuten. Igor Alda Leitzako ESAITeko laguntzaileak azaldu duenez, «08:00etan ikaragarriko euri jasa egin zuen, baina bertan ondoren puzgarriak betetzen hasi ziren. Baina berriro euria

hasi zuela ikusita azkenean puzgarriak ez betetzea erabaki zuten. Hala ere eguraidirik nahiko lagundu zuen. Jaia eta aldarrikapena bateratzen dituen egunari 10.000en emen zitaiaen hasiera. Euskal Selektzioaren Eguna-ren hasiera ospatu zuten txaloparta, txistulatu eta dantzarekin. 11:00etan ESAIT, Udala eta Udaltzako ordezkariak egindako ekitaldian Itziar Arratibel ESAITeko lehenidariak «borondate politikoa egonez gero, herri honek selektzio ofizialko izango itxupea agzimiratu zuen. Era berean, Xabier Zabalak, larunbatean Leitzako alkate kargua

eskuratuko duenak, «Udalbiltzak ESAIT) babesa ematen jarraituko» diela argi utzi zuen. Herri kirolen txanda izan zen gero, eta Idiazabal, Olartzun eta Leitzako ordezkariak proba ezberdinetan lehiatu ziren: toka, zaku lasterleta, txingak, tronka, sokorrak eta sokatira. Xabier parte-hartze irekia zenez, denek asok parte hartu zuten. Denak profesional baten aurka airtu ziren arren (aldi berean hainbat partida jokatu), inork ez zuen bere aurka irabaztea lortu. «Nesken arteko pilota partida oso animatua izan zen», dio Igor Aldiak. 13:00etan Jera Agirre eta Saioa Iraola bi saka-

natarren aurka aritu ziren pilotan. Aurreikusita zegoen bezala, 200 lagun inguru bildu ziren karrapean bazkalzeko. Bazkal ondoren bertsoariak bertotan aritu ziren eta 17:00ak aldera ikaragarriko euri jasa egin zuen. «Zakururen erakustaldia hasieraz zegoela ikaragarriko zaparrada bola zuen eta atertu arte itxaron behar izan zuten. Erakustaldia egin zen arren, trumoiak zakurrak urduri zeudela begi bistakoa zena, dio Aldiak.

Egun puntian behar muskalk herriko kaleak alaitu zituen. Trikitilariak goizez eta arratsaldez jo zuten, eta honetaz gain batukada saioa izan zen bazkalurrean eta zakururen erakustaldia eta gero. Igor Aldiak Euskal Selektzioaren Eguna-ren balantzea egin du. «Nik balorazio ona egingen dut, ez eguraldi egin zuten kontutan hartuta nahiko ongi igaro zen eguna. Eta herriko jendeaz gain, kanpoko jendea ere ikusi nuen.

Hitzak ere bere txokoa izan zuten igandean Leitzan. Plazan jarriko aitu puzgarri batekin batera. Hirzaren materiala eskuragarri egon zen postuan. Bertan igandeko aieak har zituzten eta bazkarira joan zen pertsona bakoitzari ale bat banatu zitzaion.

MARTXEL TOLEDO ▶ ESAIT EKO KOORDINATZALEA

## «Ofizialtasuna lortzen dugunean ESAIT desagertu egingo da, bere helburua bete izan baitu»

Martxel Toledo (Oiarzun, 1951) herenegun Leitzan ospatu zen IX. Euskal Selektzioaren Eguna-ren inguruan mintzatu da. **Igandeko eguna zer balorazio egingo duzu?** Balantze positiboa egingen dugu, kontutan hartuta jendearen babesa izan genduela, eta eguraldiak asko lagundu ez arren, egitarau osoa bete genduela. Gainera guretat garrantziboa zen Nafarroan egitea. **Aldizkariak zer jarrera duteko ofizialtasunarekin?** Argi daukaguna zera da, ofizialtasuna lortzeko borondate bat behar dela eta azken bate-

an arazo politiko bat dela tartean dagoena. Ez gaituzte onartzen inlariak. Ekain eta 26 bat estatu ez diren nazioak nazioarteko federazioak kide bezala onartuak diren arren, Espainiako eta Frantziako gobernuak euskal federazioari nazioarteko federazioak kide izatea debekatuak diote, arazo politiko bat dagoelako tartean eta gobernuak ez duela Euskal Herria errekonozituz. Aste horretatik ez gaude kide bezala onartuak eta beraz ofizialtasun horretan gure selektzioa ezin da nazioartekoan aurkeztu.


**Zer lortu duzue urte hauetan ESAIT duela 11 urte sortu zen** eta bere izenak esaten duen bezala Euskal Selektzioaren Aldako Itzi Talek bat gara. Gurtzaren inguruetan irizti bat sortzea, hori zen helburuetako bat. 11 urte hauetan nik, uste herraldiekin, honetan euskal selektzioaren inguruan gehiago hitz egingen dela, zentzu honetan guk izugarriko babesa ikusten dugu. Guk dugun helburuak helburu izaten jarraitzen du azken batean, ez dugulako euskal selektzioaren ofizialtasuna nazioarteko txapelketan jokatzeko lortu. Hori da helburu nagusia eta hori ez da lortu. Ofizialtasuna lortzen dugunean ESAIT desagertu egingo da, bere helburua bete izan

baitu. Birtartean zenbat kirol arlo daketan (sega, wu, shu...) existitzen da selektzioa, baina beste hainbat eta hainbatetan ez. 49 arlo ezberdin daude kirol barruan onartuak direnak, eta oso puntian daude onartu selektzio modura ibiltzen direnak. Oraindik urrun dago normalizazio bezala den ofizialtasuna. **Borondate politikoa hori gabe nole lan egingo du behar ofizialtasuna lortzeko?** Duela gutxi legebiltzarrean kirol federazioen pribatizazioa planteatu genuen. Hasek erakunde pribatuak dira eta orduan teoriar gobernuak ez luke inondik ere esku sartze-



J. MARTXEL / OROZKOIEN HITZA

rik izango. Guk planteatzen dugun bidea da politika maila hori kanpoan utzea eta pribatizazio aldera urratsak ematea, bestela beti gobernuaren borondate politikoa menpe egongo gara. ◀



200 bat pertsona bildu ziren karrapean bazkaltera. I. ARRIKETA



Euskal Selektzioaren Egunerako udalbeha bi kartelekin atondu zuten. Batean aurteko lema irakur zitekeen (Ekin eta ekain, elkarrekin aurrera egin) eta bestean onarturiko helburua: ofizialtasuna. I. ARRIKETA



Zakururen erakustaldia egin zuten arratsaldean. I. ARRIKETA

### TOLOSALDEKO HITZ.INFO

Estabaldia, «TAK»-en iturritikera hutsiz ematen du. Zer hausnarketa egingen duzu galaren inguruan?; «Hautakundetan izandako emaitzen inguruan zein balorazio egingen duzu?». Hasek dira proposatzen ditugun galak. Eman zure iritzia gure webgunean. ▶



IBARRA ▶ POLITIKA

# EAEk «710 herritarrei muzin egitea» ez duela onartuko adierazi du

Ezker abertzaleak herri batzarrera deitu du bihar 19:30ean Subegin, hauteskunde ondorengo balorazioa egiteko



«Herritarren borondatea errespetatu zedin» eskatzeko, 640 sinadura bildu zituen ezker abertzaleak. HITZA

## ASIER IMAZ

Ibarrako EAE-ANVk herriari «eskerrak» eman nahi izan dizkio hauteskundeetan lortutako emaitzengatik. «Lehenik eta behin esan, oso gustura gaudela Ibarren lortu ditugun emaitzekin. 710 bozka lortu zituen EAE-ANVren zerrendak, lehen indar bilakatuz eta gainontzeko indar politikoei baino babes askoz handiagoa lortu genuen. Adibidez PNVk 405

lortu zituen eta EAK 384. Eskerrak asko beraz, eskaini diguzuen konfidantzagatik. Gainera, emaitza hauek zerrendak Espainiak baliozko izendatu ondoren lortu ditugu, beraien demokrazia ederra ez kutsatzearren».

Hauteskundetara aurkeztu zuten herri programarekin lanean jarraitzeko asmoa ere azaldu dute EAEkoek. Horretarako beharrezkotzat jotzen dute «herri borondatea erres-

petatzea eta euren eskuetan dagoena egitea EAE udalean egoteko. Ibarren EAE-ANVtik herri programa egin genuen gizarte eragile eta elkarte desberdinen iritzi eta proposamenak jaso ondoren. Lau urte hauetarako bertan jasoak dauden gaiak jorratzea da gure asmoa». Horretarako Ibarren «herri borondatearen araberako» Udaletxea osatzea eskatu dute, hau da, jasotako boto kopuruaren araberako

Udal ordezkariak, «eta ez Madrildik agindutakoa». Gainera, aldarrikapen hori «bere egiten duten herritar askoren babesa dugu gure artean; hauteskunde egunean buruturiko sinadura bilketak erakusten duen bezala». Euren ustez, «alderdi politiko guztien esku dago instituzio ez demokratikoak osatzea ala herritarren borondatea errespetatzea; ilegalizazioen eta Alderdien Legearen kontra daudela esaten dutenen esku, hain zuzen ere».

Herritarren «710 bozkari eta ibararren nahiari muzin egitea» ez duela onartuko gaineratu dute. Egoera honi aurre egiteko dauden formula juridiko posibleetatik hitz egiteko prest daudela aurreratu dute, «beti ere apartheidak gainditze bidean. Horretarako alderdi eta eragileekin bildu eta akordioetara iristeko lanean ari gara dagoeneko».

Azkenik, Espainiako Alderdien Legeak EAE-ANVren zerrendak baliozko ez balitu, Udala nola osatua egongo litzatekeen azaldu dute, herri borondatearen adibide bezala. «Ibarrako Eusko Abertzaleen Ekintzatik ozen eskatzen dugu maiatzak 27an herritarrek euren bozkarekin egin zuten aukeraketaren arabera, alderdi politiko bakoitzari dagozkion zinegotziak hartzea. Honela geratuko litzatekeelarik Ibarren Udalaren osaketa: Aitor Garmendia, Mari Jose Ruiz, Hanoi Karrera, Edurne Urdanpilleta eta Iban Galarraga (EAE-ANVko 5 zinegotziak); Consuelo Romeo, Jose Luis Cid eta Bittori Rodriguez (EAKko 3 zinegotziak); Luis Alonso eta Mila Garcia (EAKo 2 zinegotziak) eta Aitor Gonzalez (PSE-EEko zinegotzia)».

## Bihar 19:30ean batzarra

Ibarrako ezker abertzaleak hauteskundeon balorazioa egiteko, bihar herri batzarra antolatu duela jakinarazi du. Subegi elkartean 19:30erako deitu dute hitzordura; «deialdi zabala egiten diegu herritarrei, bertara ager daitezten».

IBARRA ▶

## Gaur eta bihar emanaldiak Bidaien astean

Bidaiaren inguruko astea burutzen ari da Ibarren Kultur Etxean. Gaur *New York Airetik* dokumentala eskainiko dute 20:00etan. Bihar berriz, azken jardunaldiaren txanda izango da, *Euskal Herria Bizikletaz: nire lehen bidaiak* ikus-entzunezkoa eskainiko dute 20:00etan Benito Izagurre kultur etxean.

IBARRA ▶

## Hilaren 16an 'Marathon Ciclo Indoor 07'

Ibarren Misio Taldeak eta Bizkortzen Kirol Ekintzak I. Ziklo Indor Maratoia antolatu dute hilaren 16an, larunbaterako, 17:00etatik 19:00ak bitarte. Egun horretan lagundu nahi duenari deialdia luzatu die. Horretaz gain parte hartzeko izena emateko epea zabalik dela jakinarazi dute antolatzaileek.

GIZARTEA ▶

## Lan eskaintzak Leaburu-Txarama eta Gaztelun

Gaztelu eta Leaburu-Txaramako udalek, udaleku irekietan lan egiteko begiraleak kontratatuko dituztelako jakinarazi dute. Eskatzen diren baldintzen artean, 18 urte beteak izatea eta euskara menperatzea aurkitzen dira. Udaleku ireki hauetan ordu egia 10:00etatik 13:00etara da eta begiraleak udaletxearekin izango du kontratua uztailla osoan. Lan egiteko interesa dutenek udaletxeetara jo beharko dute instantzia eskaerak betetzera.

ELDUAIN ▶

## Zeberio II.ak galdu egin zuen larunbatean

Patxi Zeberioak galdu egin zuen asteburuan jokaturako partida, 35-40ko emaitza estuaz. Zeberio II.ak Agirrebala lagun zuela jokatu zuen Urriza eta Lizaso bikote indartsuaren aurka. Partida oso serio eta gogorra izan zen eta amaieran ikusleek txaloz agurtu zituzten lau erremontistak.

## GOIERRITARRA aldizkariak KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN

ERREFERENTZIA:07-KOG

### Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Finko gehi komisioz osatutako soldata interesgarri bat

### Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

### Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Gorri bertan edo inguruan bizitzea.
- Goierrin inguruak ongi ezagutzea.

**Curriculum Vitae** zehatza bidali ekainaren 15 baina lehen, [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) POSTA ELEKTRONIKORA  
Ez ahaztu erreferentzia zehatza

## Guztira 640 sinadura

Udal hauteskunde egunean, Ibarren ezker abertzaleak sinadura bilketa egin zuen herriko hiru hautesmahaien kanpalkaldean. Hainbat arazo izan zituzten, «herri borondatearen araberako ordezkariak errespetatu dadila» eskatu egindako sinadura bilketan. Goizean ertzainak izan ziren «oztopo, ez baitziguten hautesmahaien inguruan jar-

tzen utzi, arratsaldean berriz eguraldiak jarri zizkigun zailtasunak. Hala eta guztiz ere, 640 sinadura bildu ziren eta emaitza ona» izan dela azaldu dute ezker abertzaleak. «Beste alderdietako jende askok ere sinadu duela kontuan hartu behar da, hau da, era guztietako jendeak eskatu du herri borondatea errespetatua izan dadin». ◀

ALEGIA ▶ KULTURA

# Zortzi aingeru deabrukerietan

Zazpi Astoren Gainean bertso eskola aurten haur eta gaztetxoekin hasi da; ostiralean, bertso afarian II. Bertso Paper Lehiaketako sariak banatuko dituzte



Pasa den ostiralean Zazpi Astoren Gainean bertso eskolako ikasle gazteek merienda egin zuten. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Aingeruak direla diote, baina hasi dira dagoeneko gaiztakeria onargarri hori garatzen: bide egokia da horretarako bertsoa, euskaldunek betidanik sententzioak, sentimenduak eta adarra jotzeko erabili duten tresna, hain zuzen.

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolan ikasturte ia osoa egin dute Felix Irazustabarrenarekin eta Beñat Garmendia-rekin, hauek izan dira irakasle edo zuzentzaile. Eskola honek bi ikasturte egin ditu, baina aurtengoa lehen aldiz haur eta gaztetxoekin egin dute, eta haiek esan bezala «oso ondo joan da; adin desberdineko haur eta gazteak dira, eta mailak orduan desberdinak dira, baina gure helburu nagusia ez da bertsoa bera menperatzea, baizik eta lehenengo harreman hori, eta bertsoarekiko gustua lantzea: kantatu, bertsoak eza-gutu...».

Hiru urteko umetxo azkar bat ere bada haien artean, eta bertsoak bakarrik kantatzen dituen gainera. Bera omen da denetan azkarrena... 14 urtekoa da zaharrena, eta tarte horretako adina dute denek.

Duela bi ikasturte helduekin hasi ziren bertsozaletasuna lantzen, eta esperientzia ona izan dela esan dute bi prestatzaileek. «Aurten haurrekin egin nahi genuen, eta ondo

joan da». Zortzi bat ikasle daude aurten. Urtarrila-otsaila aldera hasi zuten ikasturtea, eta astean behin elkartu dira Intxurren bertan. Orokorrean, ikasleek «oso ondo pasatzen dute». Bertsoa gero eta gehiago ikasteaz gain, harremanetarako ere balio du. Datorren urtean jarraitzeko asmoekin daude prestatzaileak, baina berrietasun bat ere izango da: «Batzuk San Juan eskolan Bixente Gorostidirekin ere lantzen dute bertsoa, eta haien eta gure arteko zubi hori geihago landuko dugu; harremana zuzenagoa izango da».

Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte bertso eskolakoekin. Bestalde, aipamen berezia Iurgi Goñiren bertsoek jaso dute. Ostiralean bertso afaria izango da, eta bertan 12-16 urtekoen sariak banatuko dituzte, gehi helduen mailakokak.

## II. Bertso Paper Lehiaketa

Alegiko II. Bertso Paper Lehiaketa maiatzean zehar antolatu zuten, eta parte-hartzea aurreko urtearekin alderatuta areagotu egin da: «Aurtengo parte-hartzearekin oso pozik gau-



Bertsoa mementuan egin zuten, meriendaren garaian. N. URBIZU

de». 8 eta 11 urte bitartekoekin mailan 22 izan baitira, eta 12 eta 16 urte bitartekoetan, berriaz, 12.


Hauek izan dira 8 eta 11 urte bitartekoetan txapelketak: Aratz Irazustabarrena eta Jone Garmendia. Bestalde, aipamen berezia Iurgi Goñiren bertsoek jaso dute. Ostiralean bertso afaria izango da, eta bertan 12-16 urtekoen sariak banatuko dituzte, gehi helduen mailakokak.

Intxurren egingo duten bertso afarira joateko izena eman daiteke, Alegiko Ixkiñan, Etxeberrian edo bestela Kultur Etxean. Bertan, II. Bertso Paper Lehiaketako beste irabazleak zein diren esango dute. Zeinena ote dira aurtengo bertso-rik onenak?...

PILOTA ▶

## Gaur kadeteen finalerdiak, eta bihar 22 urte azpikoena

Benjaminen finala erabakita dago, eta asteburuan jada jokatuko dituzte



22 urte azpikoen artekoan Ugaiz Renobales. N. GARCIA

## N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketako finalerdiak eta final batzuk erabakita daude. Gaur, esaterako, kadeteen arteko bi finalerdiak daude jokoan Bidaniko pilotalekuan. 19:00etatik aurrera izango dira, beti bezala. Aurtengo lau kadete onenak izango dira bertan.

Aurretik, 18:30ean, hain zuzen, alebinen arteko finalerdi bat jokatu dute: Arruti-Tolosak eta Mugika-Iruretagoienak. Irabazleek finala Iribarria-Goitiaren aurka jokatu beharko dute. Beotibarren, bihar finalerdi bat izango da 20:30ean.

## Erabakitakoak

Benjaminen finala ere erabakita da: Peña-Iturbe eta Martinez-Errandonea ariko dira larunbatean.

Infantiletan Gailurralde-Goitia bikotea iritsi da finalera, eta aurkariak zein diren aste honetan erabakita da.

**INKESTA** ▶ Zergatik ikasten duzu bertsoan? Datorren urtean bertso ikastaroan jarraituko duzu?

## IBAI GABIRONDO

ALEGIA, 8 URTE



«Gustatzen zaidalako, asko ikasten dut. Datorren urtean izena emango dut. Andoni Egaña da gehien gustatzen zaidan bertsolaria».

## ARATZ IRAZUSTABARRENA

ALEGIA, 9 URTE



«Eskolan ondo pasatzen dut, eta datorrenean ere izena emango dut. Anaiari paliza eman nahi diot...».

## JONE GARMENDIA

IKAZTEGIETA, 12 URTE



«Bertsoak betidanik gustatu zaizkit eta horregatik nator; neska bakarra naiz baina ondo moldatzen gara. Datorren urtean berriz».

## IMANOL IRAZUSTABARRENA

ALEGIA, 14 URTE



«Bertsoak asko gustatzen zaizkit, betidanik, ohitura daukat. Aurten azkarrago, eta bat batean botatzeko gaitasuna areagotu dut. Datorren urtean izena emango dut berriz».

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Etxebizitza.** Alegian 2 logelako etxebizitza polita salgai, erabat berritua, 2 bainugelarekin. 36.000.000 pezeta. Interesatuak deitu: 669 827096.

**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosan. 3 logela, egongela, 2 bainugela eta trastelekuarekin. Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan. Ikuspegi ederrak. 44.000.000 pezeta. Deitu 626 752744 telefono zenbakira.

**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai, ebera eramaten da. 615 755762.

### LANA

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da kafetegri batean lan egiteko. Esperientzia. Iganade eta jai egunak libre. 943 670446.

### BESTELAKOAK

**Pultsera.** Alkizan, urrezko pultsera bikia agertu da. «Lierni» izena jartzen du. 943 693731.



**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Alegia.** Esgrima, aerobik eta piraguismo ikastaroak antolatu dituzte Alegian, 8 eta 16 urte artekoentzat. Izen-ematea, Kultur eta Kirol Etxean 15a baino lehen.

**Ibarra.** *New York airetik* dokumentala emango dute Ibarako Kultur Etxean 20:00etan bidai astearren baitan.

**Leaburu.** Uli mankomunitateak irteera antolatu du Iparraldera eta kostaldera hilaren 15erako. Izen-ematea, 943 682228 telefonoan 23 eurotan.

**Tolosa.** Urduña-Angulo mendatea (Araba) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen bertan (Gudari 6. 943 65 27 89).

**Tolosa.** Sakramentinoen mendeurrenaren barruan, argazki eta eliz-ontziteriaren erakusketa izango da ikusgai Sakramentinoetan.

**Villabona.** Moncayo mendira irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen edo 943 694458 telefonoan (Joxan).

**Villabona.** Elbarrenako jaietarako kartel lehiaketa. Informazioa eta izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan. Epea: uztailak 6

**Zizurkil.** Ekainaren 25etik uztailaren 20ra izango diren *Oporretan Euskaraz 2007* udaleku irekietarako izen-ematea zabalik udaletxean. Gurasoen bilera, ekainaren 21ean 18:30ean Abulondo kultur etxean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitza-ren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-20:00.** Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).  
**20:00-21:00.** Goiko eskolatik betti.  
**21:00-22:00.** Izarrak eta ilargia.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.

# Igarondoko igerilekuari agur

**TOLOSA ▶** Makinak lanean hasi ziren hilabete hasieran Igarondo igerilekua botatzeko; lur eremuan 68 etxebizitza eraikiko dituzte, 18 babes ofizialekoak



Makinak hasi dira Igarondo igerilekua botatzen. I. IMAZ



Eskolapiotako aldatatik duen itxura. E. EZEIZA



Urte batzuk barru etxebizitzak egongo dira bertan. E. EZEIZA

**ERREDAKZIOA**

**N**ork ez ditu gogoan Igarondo igerilekuan igarotako uda beroko egunak? Koadrillarekin zein gurasoekin igerilekura eginiko bisitak? Bada, oroitzapen hauek tolosar askoren historiarako pasarte bilakatu dira, hil honen hasiera geroztik, igerilekua botatzen hasi direlako dagoeneko.

Lur eremu honetan 68 etxebizitza eraikiko dituzte, horietatik 18 babes ofizialekoak. Inguruan eraikuntza gehiago botako dituzte, Tolosana paper-fabrika, hain zuzen ere. Aurki ekingo diete bertan botatze lanei, non 50 etxebizitza gehiago eraikiko dituzten.

**AGURRAK ▶**


*Miel ta Anttoni*

*Zumarragako Antiguako Ama zelarik bitarte, uztartu ziren beriotzak sakabanatu arte, orduan ereindako baziak gaur frutua dakarte, hogeitabost urte eta gero bartu nabi genuke parte gure zorionik beroenak ta bazkaria aparte!!*

**ZORIONAK!**  
Miel eta Anttoni.

**Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
agurren tartea



**URTE ASKAO**  
Iñigo. Gu ere zure pare, beti berandu! Zorionak kafe zerbitzari onenari.